

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko erroldak jendaurrean jartzea**

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen Okondoko udalerriko 2020ko erroldak egin dira. Beraz, errolda horiek jendaurrean jarriko dira hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten bada, Arabako Foru Aldundiak ebatziko ditu, eta udalak ordainketa egiteko ordainagiriak emango ditu. Ordainketak egiteko bi hilabeteko epea izango da, 2020ko urriaren 1etik azaroaren 30era arte, hain zuzen ere.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, berez eta besterik gabe betearazteko aldia hasiko da. Horrek berarekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekareruak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorren 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak direla-eta, zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko, bankuak 2020ko azaroaren 5ean egingo baitu zordunketa.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2020ko maiatzaren 14a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO*